# Iragarkiak

## Pribatuen Iragarkiak

**SPRI SA**

**2480**

IRAGARKIA, «EPM-Ekipamendu Produktiboak Modernizatzeko» laguntza-programaren araudia aldatzeko dena.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAren Administrazio Kontseiluak 2011ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran erabaki zuen «EPM-Ekipamendu Produktiboak Modernizatzeko» laguntza-programaren araudiko 3. artikuluko 1., 2., 4. eta 5. paragrafoak eta 8. artikuluko 3. paragrafoa aldatzea. Araudi hori, bestalde, 2011ko urtarrilaren 26ko EHAAn argitaratu zen.

Onartutako aldaketak egin ondoren, honela geratzen da «EPM-Ekipamendu Produktiboak Modernizatzeko» laguntza-programaren testua:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

Laguntza-programa honen xedea da industria-makina berrietan egin beharreko inbertsioak sustatzea, produkzio-ekipamenduetan modernizazio maila altua lortzeko eta, aldi berean, ekipamendu horiek laneko segurtasun eta osasun arauei egokitzeko, hala nola, 95/16/EE Zuzentaraua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/42/EE Zuzentarauan ezarritako betebeharren arabera, makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzeari buruzko urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuan ezarritako xedapenei egokitzeko. Gainera, modu horretara, dagoen makineria txatar bihurtzea eta bere ordez makineria berria jartzea ahalbidetuko da.

***2. artikulua.***– Onuradunak.

1.– 50 langile baino gutxiago dituzten eta laneko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten industri enpresek eskuratu ahal izango dituzte programa honek arautzen dituen laguntzak.

2.– Hauek dira enpresa onuradunen betebeharrak:

a) Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko araudian ezarritako eskakizunak betetzea:

– Laneko Arriskuen Ebaluaketa eta Prebentzio Plana egina izatea, prebentziorako antolaketa-modu bat

# Anuncios

## Anuncios Particulares

**SPRI, S.A.**

**2480**

ANUNCIO de modificación de la normativa del programa de ayudas Modernización de Equipamientos Productivo (MEP).

El Consejo de Administración de Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. en su reunión de 30 de marzo de 2011, ha acordado aprobar la modificación de los artículos 3.º, apartados 1.º, 2.º, 4.º y 5.º, y el artículo 8.º, apartado 3.º de la normativa del programa Modernización de Equipamientos Productivos (MEP) publicada en el Boletín Oficial del País Vasco el 26 de enero de 2011.

Tras las modificaciones acordadas, el texto íntegro del Programa Modernización de Equipamientos Productivos (MEP) quedará como sigue:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1***.– Objeto.

Es Objeto del presente programa de ayudas fomentar las inversiones en maquinaria industrial nueva para alcanzar un alto grado de modernización de los equipamientos productivos y a su vez, su adecuación a las normas de seguridad y salud laboral y de las especificaciones establecidas en Real Decreto 1644/2008, de 10 de octubre, por el que es establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas de acuerdo con las obligaciones recogidas en la Directiva 2006/42/CE del Parlamento Europeo y del Consejo relativa a las máquinas y por el que se modifica la Directiva 95/16/CE, propiciando el achatarramiento de la maquinaria existente para sustituirla por una nueva.

***Artículo 2.***– Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Programa las empresas industriales que cuenten con una plantilla de menos de 50 trabajadores y tengan su centro de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Requisitos de las empresas beneficiarias:

a) Cumplir las siguientes exigencias impuestas por la normativa en materia de seguridad y salud laborales:

– Haber realizado la Evaluación de Riesgos Laborales y el Plan de Prevención adoptando una modali-

ezarriz, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta urtero egin beharreko prebentzio plana egina izatea.

– Prebentzio-sistemaren auditoria egin izana, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, hala behar duten antolaketa-moduetarako ezarrita dagoena.

b) Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzari dagozkionak eta SPRI taldeko sozietateekikoak egunean izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitezkeen mugei jarraiki.

c) Indarrean dagoen legeriaren arabera laguntza publikoak jasotzeko beharrezko baldintzak betetzea.

3.– Ezin izango dira laguntzen onuradun izan:

a) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, ez eta horiek partaidetzaren gehiengoa duten enpresa edo antolakundeak ere.

b) Ondoko sailek dituzten eskumen-arloetan inbertsio-proiektuak dituzten enpresak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Garraio eta Herri Lan Saila, eta Nekazaritza eta Arrantza Saila.

***3. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen inbertsioak.

1.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, makina berriak erosteko gastu egiaztatuetatik balio erantsiaren gaineko zerga kenduta geratzen den balio garbia izango da laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

Deskontuak eta antzekoak izanez gero, fakturan sartuta egon zein ez, erosketa-balioa gutxitu egingo da.

2.– Makina berriek makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen dituen urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuan ezarritako xedapenak bete beharko dituzte. Dena den, Kontseiluaren 89/392/EEE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen azaroaren 27ko 1435/1992 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak betetzen dituzten makinak ere onartuko dira baldin eta berriak badira eta 2009ko abenduaren 29a baino lehenago eginak izan badira.

3.– Kendu beharreko makinek gutxienez 10 urte izan beharko dituzte, eta txatar bihurtu beharko dira; beraz, ezingo dira ezein produkzio prozesutan erabili, ez zatika ezta osorik ere, ez enpresan bertan ez beste edozein enpresatan.

dad de organización de la prevención, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, y tener elaborada la planificación preventiva con carácter anual.

– Haber llevado a cabo la Auditoria del Sistema de Prevención establecido para aquellas modalidades organizativas que lo requieran, en virtud de lo dispuesto en el artículo 29 del citado Real Decreto 39/1997, de 17 de enero.

b) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, según los límites que resulten exigibles de acuerdo con la legislación vigente, así como estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones que mantengan con cualquiera de las sociedades del Grupo SPRI.

c) Reunir los requisitos necesarios para obtener ayudas públicas de acuerdo a lo establecido en la legislación vigente.

3.– Quedan excluidas como beneficiarias:

a) Las Sociedades Públicas y Entidades de Derecho Público, así como cualquier empresa u organización en la que su participación sea mayoritaria.

b) Las empresas cuyos proyectos de inversión corresponden a los ámbitos competenciales de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Transportes y Obras Públicas, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Artículo 3.***– Inversión subvencionable.

1.– Se considera inversión subvencionable, a efectos del cálculo de las ayudas, el valor neto, una vez deducido el Impuesto sobre el valor añadido, de los gastos acreditados en concepto de nueva maquinaria.

Los descuentos y similares, incluidos o no en factura, suponen un menor valor de compra.

2.– La maquinaria nueva deberá cumplir con todas las disposiciones establecidas en el Real Decreto 1644/2008, de 10 de octubre, por el que se establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas. No obstante se admitirán maquinas que cumplan con los requisitos del Real Decreto 1435/1992, de 27 de noviembre, por el que se dictan las disposiciones de aplicación de la Directiva del Consejo 89/392/CEE, cuando sean nuevas y cuya fecha de fabricación sea anterior al 29 de diciembre de 2009.

3.– La maquinaria existente a retirar, deberá contar con una antigüedad mínima de 10 años, y habrá de ser achatarrada, no pudiendo ser utilizada en ningún proceso de producción ni parcial ni totalmente tanto en la propia empresa como en cualquier otra empresa.

4.– Makina berriak enpresa onuradunean instalatuko dira eta enpresako arriskuen ebaluazioan sartuta egon beharko dute. Honako zehaztapen eta ezaugarri hauek ere bete beharko ditu:

a) Makinek CE marka eduki behar dute azaleran. Marka horrek ezabaezina, irakurgarria eta argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du, makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzeari buruzko urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuaren III. eranskinean (CE Marka) ezarritako zehaztapenekin bat etorriz.

b) Makinetarako derrigorrezkoa den «CE» adostasun-aitorpena eduki behar du, makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzeari buruzko urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Adierazpenak) ezarritako zehaztapenekin bat etorriz. Adierazpen hori eta horren itzulpenak jarraibideen gidaliburuaren baldintza berberetan idatzi beharko dira; beraz, adostasun-aitorpena gaztelaniaz idatzita edota jatorrizko hizkuntzatik gaztelaniara itzulita egongo da.

c) Jarraibideen gidaliburu bat erantsi behar zaio, gutxienez gaztelaniaz egongo dena, eta horrek makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzeari buruzko urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretuaren I. Eranskineko 1.7.4 paragrafoan ezarritakoa jaso beharko du.

5.– Diru-laguntza jaso dezaketen inbertsioak, erakunde eskatzailearen ustiapen ekonomikoaren produkzio prozesuari lotutako makina berrietan egiten diren inbertsioak izango dira soilik, hau da, produktuak eta materialak ontziratzeko eta paketatzeko, osagarriak muntatzeko, lehengaiak eta erdilandutako produktuak eraldatzeko, eta produkzio prozesuetako erabilera automatikoa egiteko erabiltzen diren makina berriak erosteko inbertsioak. Makina berri horiek, bestalde, ordeztutako makinek zituzten funtzio berberak gauzatu behar dituzte gutxienez eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden lantokietan instalatuta egon beharko dute.

6.– SPRI SAren Makina Erreminta Berritzeko Programako makina-erreminta baliatu gabekoa izan beharko du inbertsioak.

7.– Inbertsioa finantza errentamenduaren bidez finantzatu ahal izango da, eta diru-laguntza jaso ahal izango du, baldin eta enpresak erosteko aukera gauzatzeko konpromisoa hartzen badu, hain zuzen ere eragiketa egiten duen finantza-erakundearekin.

8.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak eskaera egiten den ekitaldi ekonomikoan zehar burutu beharko dira.

9.– Makineria berria ezin izango da Euskal Autonomia Erkidegotik atera erosten denetik bost urteko

4.– La maquinaria nueva será instalada en la empresa beneficiaria debiendo estar incluida en la evaluación de riesgos de la empresa. Además deberá cumplir con las siguientes especificaciones y características:

a) Tener el marcado CE en la máquina de manera visible, legible e indeleble, cuyo diseño y contenido debe realizarse de acuerdo a las especificaciones establecidas en el anexo III, «Marcado CE», del Real Decreto 1644/2008, de 10 de octubre, por el que se establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas.

b) Contar con la preceptiva declaración «CE» de conformidad de la máquina, de acuerdo a las especificaciones establecidas en el anexo II «Declaraciones» del Real Decreto 1644/2008, de 10 de octubre, por el que se establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas. Esta declaración y sus traducciones deberán redactarse con las mismas condiciones que el manual de instrucciones, en consecuencia dicha declaración de conformidad deberá estar redactada o traducida del original al menos en castellano.

c) Acompañarse de un manual de instrucciones, al menos en castellano, de acuerdo con lo establecido en el apartado 1.7.4 del anexo I del Real Decreto 1644/2008, de 10 de octubre, por el que se establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas.

5.– Solo será subvencionable, la inversión que se realice en maquinaria nueva destinada al envasado y embalaje de productos y materiales, al ensamblaje de componentes, a la transformación de materia prima y productos semielaborados, y a la manipulación automática en los procesos productivos de la explotación económica de la entidad solicitante, que realice cuando menos las mismas funciones que la sustituida, y que se encuentre instalada en centros de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

6.– La inversión no deberá haberse acogido para la misma máquina-herramienta al Programa «Renove Máquina Herramienta» de SPRI, S.A.

7.– La inversión, podrá financiarse mediante arrendamiento financiero y será considerada subvencionable, siempre y cuando la empresa se comprometa expresamente a ejercitar la opción de compra correspondiente ante la entidad financiera con la que realice la operación.

8.– Las actuaciones objeto de subvención deberán realizarse en el ejercicio económico en que se presenta la solicitud.

9.– La maquinaria nueva no podrá trasladarse fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco dentro

epean, erosi den helbururako erabili beharko da eta jabetza mantendu epe horretan.

II. KAPITULUA
LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

***4. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoak.

Diru-laguntza ez itzulgarri gisa eman beharreko laguntzek makina berriak erosteko gastu egiaztatuen % 20 finantzatuko dute, eta gehienez ere 18.000 euro emango dira erositako makina berri bakoitzeko. Diru-laguntza enpresa bakoitzeko eta urteko, gehienez ere, 40.000 eurokoa izango da.

***5. artikulua.***– Laguntzen metaketa eta mugak.

1.– 1988/2006 Erregelamenduan (edo horren ordezkoan) ezarritako gehienezko muga ez bada gainditzen, laguntza hauek eman ahal izango dira; eta, halaber, kasua bada, Europako Batzordeak baimendutako estatu-laguntzen araubidean, minimis laguntzak emateko ezarritako gehienezko muga gainditzen ez bada.

2.– Proiektu bati emandako laguntzen eta diru-laguntzen zenbatekoa, banaka hartuta nahiz beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin batera, edota xede berbererako erabilitako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekin batera hartuta, ezin da izan onuradunak burutu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa edo laguntzaren xedearen kostua baino handiagoa; onuradunak, gainera, laguntza edo diru-laguntza horien berri eman behar dio SPRI SAri nahitaez.

Muga hori, edo laguntza-lerro honek zehazten dituen beste batzuk, gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da laguntza-lerro honen arabera emandako zenbatekotik.

Artikulu honetan zehaztutako metatze-mugak ez direla gainditzen egiaztatzeko, onuradunak aurreko bi zergalditan eta unekoan jasotako beste edozein laguntza publikoren gaineko deklarazioa aurkeztu beharko dio SPRI SAri.

III. KAPITULUA
PROZEDURA

***6. artikulua.***– Eskabidea.

1.– Programa honetan ezarritakoaren arabera, aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten enpresek SPRI SAn aurkeztu beharko dituzte eskabidea eta gainerako agiri osagarriak.

2.– Eskabide eredua eta inprimakiak Internet-eko helbide honetan bete beharko dira: www.spri.es.

del plazo de 5 años desde la fecha de su adquisición, debiéndose destinarse al fin para que se adquirió y mantenerse la propiedad durante ese mismo plazo.

CAPÍTULO II
CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

***Artículo 4.***– Cuantía de las ayudas.

Las ayudas a conceder en concepto de subvenciones no reintegrables serán del 20% de los gastos acreditados en concepto de adquisición de nueva maquinaria, con un importe máximo a otorgar de 18.000 euros por máquina nueva adquirida. La ayuda máxima por empresa y año es de 40.000 euros.

***Artículo 5.***– Acumulación y límites de las ayudas.

1.– Se podrán conceder estas ayudas en tanto no se exceda del límite máximo establecido en el Reglamento 1988/2006 (o cualquier otro que lo sustituya) o, en el caso en que resulte de aplicación, del límite máximo establecido para la concesión de ayudas de minimis en un régimen de ayudas de Estado autorizado por la Comisión Europea.

2.–El importe de las ayudas y subvenciones concedidas al mismo proyecto en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, con cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria o de la finalidad para la que se concedió la ayuda, estando obligado a comunicar las mismas a SPRI, S.A.

En caso de superarse dicho límite, u otros que establezca esta línea de apoyo, la ayuda concedida en virtud de esta línea de apoyo se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

Al objeto de poder verificar que no se superan los límites de acumulación descritos en el presente artículo, el beneficiario deberá aportar a SPRI, S.A. una declaración escrita sobre cualquier otra ayuda pública recibida durante los dos ejercicios fiscales anteriores y durante el ejercicio fiscal en curso.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO

***Artículo 6.***– Solicitud.

1.– Las empresas que, de conformidad con lo establecido en el presente Programa, reúnan las condiciones para poder acceder a las ayudas previstas, deberán presentar la solicitud, y demás documentación complementaria, en SPRI, S.A.

2.– El modelo de solicitud y formularios se cumplimentará, en la dirección de Internet, www.spri.es.

3.– Laguntzen programa hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasi eta azken xedapenetatik lehenengoan ezarritako indarraldiaren bukaerara arte irekita egongo da eskabideak aurkezteko epea.

*7. artikulua.*– Onuradunak aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabideak egitean, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

• Agiri administratiboak:

– Eskabide normalizatuaren inprimakia (Internet-eko helbide honetan: www.spri.es).

– Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko obligazioak beterik dituela egiaztatzeko agiri eguneratuak. Eskabidea aurkeztu zen egunetik hara 3 hilabeteko antzinatasunetik ez da pasako data.

– Eskabidea sinatu duen pertsonaren ahalordearen fotokopia.

– Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (Internet-eko helbidea: www.spri.es).

– Enpresaren adierazpena, enpresak aurtengo ekitaldi ekonomikoan eta aurreko bietan estatu-laguntzaren izaera duen laguntza-erregimenaren babesean jasotako zenbatekoak egiaztatzen dituena, edozein dela ere laguntza eman duen erakundea.

– Adierazpena, eskatzailea berreskuratze-agindu baten menpe ez dagoela dioena, hain zuzen ere, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabakitzearen ondorioz.

• Agiri teknikoak:

– Makina berrien erosketa egiaztatzen duten fakturen kopiak.

– Makinei buruzko informazioa eskaintzen duten agiriak, bai txatar bihurtutako makinei bai makina berriei buruzkoa; azken kasu horretan, makinek aurreko 3.4 artikuluan adierazitako ezaugarriak betetzen dituztela zehaztuko da (www.spri.es helbidean).

• Laneko segurtasun eta osasun arloko agiriak:

– Enpresa eskatzaileak hitzartu duen kanpoko prebentzio zerbitzu baimenduaren edo baimenduen ziurtagiria. Horretan, hitzarmenak eta hitzartutako espezialitateak indarrean daudela adieraziko da.

– Behar izanez gero, auditoria egiteko erakunde baimenduaren ziurtagiria, enpresak prebentzio sistemaren arauzko auditoria egin duela eta hori eguneratua dagoela egiaztatuz.

– Makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzeari buruzko urriaren 10eko

3.– El plazo de presentación de solicitudes quedará abierto desde la publicación del presente Programa de Ayudas en el Boletín Oficial del País Vasco hasta la finalización de la vigencia indicada en la Disposición Final Primera.

*Artículo 7.*– Documentación a presentar por beneficiario.

1.– Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

• Documentación administrativa:

– Impreso de instancia normalizada (en la dirección de Internet, www.spri.es).

– Certificados actualizados de encontrarse al corriente de sus obligaciones con la Hacienda Foral y con la Tesorería General de la Seguridad Social. La fecha no puede poseer una antigüedad superior a los 3 meses de la fecha de presentación de la solicitud.

– Fotocopia del poder de representación de la persona firmante de la solicitud.

– Declaración responsable de la entidad solicitante (en la dirección de Internet, www.spri.es).

– Declaración de la empresa acreditativa de todas las cantidades percibidas por dicha empresa durante el presente ejercicio económico y los dos ejercicios económicos anteriores al amparo de un régimen de ayudas que tenga la condición de ayuda estatal, con independencia de la entidad concedente.

– Declaración de que el solicitante no está sujeto a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

• Documentación técnica:

– Copia de las facturas, correspondientes a la adquisición de la nueva maquinaria.

– Documentación informativa de las máquinas, achatarrada y nueva, y en este último caso se especificará que cumple con las características expuestas en el artículo 3.4 anterior (en la dirección de internet www.spri.es).

• Documentación en materia de seguridad y salud laboral:

– Certificado del/de los servicio/s de prevención ajeno/s autorizado/s, con el/los que ha concertado la empresa solicitante, en el/los que conste la vigencia actual del/de los concierto/s y la/s especialidad/es concertada/s.

– Si procede, Certificado de la Entidad Auditora autorizada, en el que conste que la empresa ha realizado la Auditoría Reglamentaria del sistema de prevención y que ésta se encuentra actualizada.

– Declaración «CE» de conformidad de la máquina al menos en castellano, de acuerdo a las especifica-

1644/2008 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Adierazpenak) ezarritako zehaztasunen araberako makinetarako «CE» adostasun-aitorpena, gutxienez horren gaztelaniazko testua.

2.– Eskabidean akatsik balego edo oso-osorik bete ezean, edota aurreko puntuan zerrendatutako agiri guztiak aurkeztu ezean, SPRI SAk 10 eguneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko dio interesdunari. Halaber, eskatzaileari jakinaraziko dio, hori egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko dela.

3.– Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta tramitatzeko, SPRI SAk beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio enpresa eskatzaileari.

***8. artikulua.***– Erakunde laguntzaileek aurkeztu beharreko ziurtagiri teknikoak.

1.– Behin eskabide osoa jaso ondoren, eta hura tramitatzeari ekin ahal izateko, SPRI SAk makineria berriaren ikuskapeneko ziurtagiri teknikoak eskatuko ditu, eta baita ordeztutako makineria txatar bihurtu izanaren ziurtagiriak ere.

2.– Makina-erreminta Fabrikatzaileen Elkartea (AFM) izango da makina zaharkituak txatar bihurtzearen arduraduna, elkarteari atxikitako enpresen bidez makineria txatar bihurtuz eta beharrezko ziurtagiria eskuratuz. Enpresa hornitzailea elkarteko kide ez denean, aipatutako ziurtagiria eskuratzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu, eta SPRI SAra bidaliko du.

3.– Osalan arduratuko da agiri teknikoak nahiz laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak aztertzeaz eta makineria ikuskatzeaz. Osalaneko teknikoa enpresara joan eta makinan edo agiri teknikoetan hutsuneak ikusten baditu, hilabeteko epea jarriko du hutsune horiek zuzentzeko, programa kudeatzen duen aplikazio informatikoaren bitartez huts horien berri ematen den egunetik aurrera kontatzekoa. Azkenik, Osalanek txosten bat igorriko dio SPRI SAri ikuskapena egin dela egiaztatuz eta eskakizunak behar bezala bete diren ala ez adieraziz.

***9. artikulua.***– Laguntza ematea eta ordainketa.

1.– Aurreko artikuluetan aipatutako agiriak, hau da, Makina-erreminta Fabrikatzaileen Elkartearen (AFM) ziurtagiria, alegia makina txatar bihurtu izanaren ziurtagiria, eta Osalanen txostena jaso ondoren, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea SAk (SPRI, SA) egoerari buruzko txosten zehatza igorriko dio jasotako eskabideak ebaluatu eta ebazte aldera sortuko den Batzordeari.

ciones establecidas en el anexo II «Declaraciones» del Real Decreto 1644/2008, de 10 de Octubre, por el que se establecen las normas para la comercialización y puesta en servicio de las máquinas.

2.– Si la solicitud presentara deficiencias o no viniera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañada de la documentación relacionada en el punto anterior, SPRI, S.A., requerirá a la empresa interesada para que, en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición.

3.– En cualquier caso, SPRI, S.A., podrá requerir a la empresa solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada.

***Artículo 8.***– Certificaciones Técnicas a remitir por las Entidades Colaboradoras.

1.– Una vez recibida la solicitud completa, SPRI, S.A., para proceder a su tramitación, solicitará las certificaciones técnicas de inspección de la maquinaria nueva, y de achatarramiento de la maquinaria sustituida.

2.– La Asociación de Fabricantes de Maquina Herramienta (AFM), será quien proceda al achatarramiento de las máquinas obsoletas, asumiendo a través de sus empresas asociadas el efectivo achatarramiento de la maquinaria y la responsabilidad de su certificación, cuando la empresa proveedora no sea socia de la Asociación, también pondrá los medios necesarios para la emisión de dicho certificado y lo remitirá a SPRI, S.A.

3.– Corresponderá a Osalan, el análisis de la documentación técnica y de seguridad y salud laboral así como la inspección de la maquinaria. Cuando el personal técnico de Osalan acude a la empresa y constata deficiencias en la documentación técnica o en la máquina, fijará un plazo único de un mes para la subsanación de las deficiencias, a contar desde la fecha de la comunicación de las mismas a través de la aplicación informática que gestiona el programa. Finalmente, Osalan, emitirá un informe a SPRI, S.A., en el que se establezca la inspección realizada, y la conformidad o no del cumplimiento de los requisitos.

***Artículo 9.***– Concesión y pago.

1.– Una vez recibido el certificado de achatarramiento de la Asociación de Fabricantes de Maquina Herramienta (AFM) y el informe de Osalan mencionado en los artículos anteriores, y a la vista de los mismos, el Área de Promoción Empresarial de SPRI, S.A., emitirá un informe detallado de situación a la Comisión que se creará para la evaluación y resolución de las solicitudes recibidas.

Laguntza-eskabidea behar bezala betetzen den egunetik 6 hilabete pasa baino lehen ebaluatu eta ebatziko du Batzordeak.

2.– Laguntza ez da emango edo igorriko, kasuak kasu, makina berria instalatu gabe badago. Laguntzarik ez da emango baldin eta eskatzailea berreskuratze-agindu baten menpe badago, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabaki ondoren.

3.– Batzordeak hartutako erabakia oinarri harturik, SPRI SAk aurreko 1. puntuaren bigarren paragrafoan adierazitako 6 hilabeteko epe horren barruan, jakinarazpen-ebazpen bat egingo du, enpresa onuradunari zuzendua, laguntza eman eta ordaindu izana adieraziz. Epe horretan ebazpena jakinarazi ez bada, eskaria ez dela aintzat hartu ulertuko da.

IV. KAPITULUA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

***10. artikulua.***– Erakunde laguntzaileak.

1.– Osalanek erakunde laguntzaile gisa dituen eginkizunak:

a) Agiri teknikoak nahiz laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak aztertzea.

b) Makinak ikuskatzea.

c) Ikuskapenei buruzko txostenak egitea.

d) Programaren eta baterako finantzaketaren batzordeetan elkarlanean aritzea.

e) Aldian-aldian, SPRI SAri gerta litezkeen gorabeherak jakinaraztea.

2.– Makina-erreminta Fabrikatzaileen Elkarteak (AFM), erakunde laguntzaile gisa, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Makina zaharkituak txatar bihurtzea.

b) Aldian-aldian, SPRI SAri txatar-bihurtzeen ziurtagiriak igortzea.

c) Sektoreko enpresen artean programa hedatzeko jarduerak burutzea.

d) Programaren batzordeetan elkarlanean aritzea.

e) Aldian-aldian, SPRI SAri gerta litezkeen gorabeherak jakinaraztea.

V. KAPITULUA
INFORMAZIO BETEBEHARRA
ETA EZ-BETETZEAK

***11. artikulua.***– Enpresa onuradunek informazioa emateko betebeharra.

1.– SPRI SAk eskubidea du egoki ikusten dituen egiaztapen, ikuskatze eta gainontzeko kontrol neurri-

La Comisión evaluará y resolverá en el plazo máximo de 6 meses contados a partir de la fecha en que la Solicitud de Ayuda esté debidamente cumplimentada.

2.– No se procederá a la concesión y en su caso libramiento de la ayuda, si la maquina nueva no se encuentra instalada. Tampoco se procederá a la concesión cuando el solicitante esté sujeto a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

3.– Sobre la base del acuerdo adoptado por la Comisión, SPRI, S.A., dentro del mismo plazo de 6 meses indicado en el párrafo segundo del punto 1 anterior redactara una comunicación-resolución, indicando la concesión y el pago de la ayuda, dirigida a la empresa beneficiaria. Transcurrido dicho plazo sin que se haya comunicado la resolución, la solicitud se entenderá desestimada.

CAPÍTULO IV
ENTIDADES COLABORADORAS

***Artículo 10.***– Entidades Colaboradoras.

1.– Funciones de Osalan como Entidad Colaboradora:

a) Analizar la documentación técnica y de seguridad y salud laboral.

b) Inspeccionar la maquinaria.

c) Elaborar informes de las inspecciones.

d) Colaborar en las comisiones del programa y cofinanciación.

e) Comunicar periódicamente a SPRI, S.A., de posibles incidencias que se produzcan.

2.– La Asociación de Fabricantes de Maquina Herramienta (AFM), como Entidad Colaboradora, se encargará de las siguientes funciones:

a) Achatarrar las maquinas obsoletas.

b) Remitir certificado de achatarramiento a SPRI, S.A.

c) Realizar labores de difusión del programa entre las empresas del sector.

d) Colaboración en las comisiones del programa.

e) Comunicaciones periódicas a SPRI, S.A. de posibles incidencias que se produzcan.

CAPÍTULO V
OBLIGACIÓN DE INFORMACIÓN
E INCUMPLIMIENTOS

***Artículo 11.***– Obligación de información de las empresas beneficiarias.

1.– SPRI, S.A. podrá realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control esti-

ak gauzatzeko, laguntzen programa honen garapena eta aplikazioa bermatze aldera eta baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla egiaztatze aldera.

2.– Egiaztapen lanetan ikusiko balitz diru-laguntzaren onuradunak ez duela programa honetan ezarritako baldintzetakoren bat bete, kobratu dituen diru-kopuruak itzul ditzala eskatuko dio SPRI SAk eta, beharrezkoa izanez gero, itzulketa hori egiteko behar diren legezko jarduerak martxan jarriko ditu.

3.– Enpresa onuradunen betebeharra da Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dieten informazio oro ematea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Programa honetako laguntza neurriak 2011-10-14ra arte egongo dira indarrean. Hala ere, aurkezten diren eskabideak ekitaldi bakoitzean aztertuko dira hurrenkera kronologikoaren arabera, behar bezala bete direnean eta urtean helburu horretarako gaitu den kredituaren mugara bitarte. Kreditua agortu eta gero, ez da eskabiderik aztertuko, nahiz eta jada aurkeztuta egon. Kreditua agortu izanaren berri interneteko helbide honetan emango da: www.spri.es.

Dagoeneko aurkeztuta eta izapide-fasean dauden eskabideei, esleituriko aurrekontu-hornidura agortu delako erantzun ezin izan bazaie, ezezkoa emango zaie arrazoi hori dela-eta, organo eskudunaren ebazpenaren bidez.

***Bigarrena***.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, SPRI SAk diseinatu eta/edo kudeatu dituen laguntzen/diru-laguntzen espedienteak kudeatzeko, SPRI SAren ardurapeko «Laguntzak» fitxategian edo SPRI SAn parte hartzen eta/edo kolaboratzen duten profesionalen informazioa kudeatzeko «Aholkulariak» fitxategian sartuko dira eskatzaileak ematen dituen datu pertsonalak (SPRI SA, Urkixo zumarkalea 36, 4.a, Bizkaia Plaza Eraikina, 49011 Bilbao). Informazio hori enpresa kolaboratzaileei, arlo horretan eskumena duen administrazio publikoari eta SPRI taldeko enpresei eman ahal izango zaie, hala behar izanez gero. Gogorarazten dizuegu datu hauek eskuratzeko aukera duzuela, eta hala behar izanez gero, datuok eskatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo baliogabetzeko, aipatu legean xedatzen den moduan. Horretarako idatzizko komunikazioa helarazi beharko zaio SPRI SAko Segurtasuneko arduradunei lopd@spri.es helbidera.

me oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de Ayudas.

2.– Si en el curso de estas verificaciones se detectase que el beneficiario de la subvención ha incumplido alguna de las condiciones establecidas en el presente programa, se procederá por parte de SPRI, S.A. a solicitar la devolución de las cantidades percibidas procediéndose, en su caso, a poner en marcha las actuaciones legales a las que hubiera lugar para conseguir su reintegro.

3.– Las empresas beneficiarias estarán obligadas a facilitar cuanta información les sea requerida por la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La vigencia de las medidas de apoyo del presente Programa será hasta el 14-10-2011, señalándose, sin embargo, que las solicitudes que se presenten serán atendidas en cada ejercicio por el orden cronológico que les corresponda a partir del momento en que estén debidamente cumplimentadas, y hasta el límite del crédito anual disponible. A partir del agotamiento del crédito no se atenderá a las solicitudes posteriores aun cuando estuvieren ya presentadas. Se dará publicidad del agotamiento del crédito en la dirección de Internet, www.spri.es.

Las solicitudes que estuvieran ya presentadas y en tramitación, que no pudieran ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante resolución del órgano competente.

***Segunda***.– De conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, les informamos que los datos personales aportados por el solicitante se incorporarán al fichero «Ayudas»,para gestionar los expedientes de ayudas/subvenciones diseñados y/o gestionados desde SPRI, S.A. o bien al fichero «Consultores» para gestionar la información de los profesionales que participan y/o colaboran con SPRI, S.A. en la prestación de sus servicios y ayudas, de ambos ficheros es responsable SPRI, S.A., con domicilio en Alameda Urquijo 36, 4.º Edificio Plaza Bizkaia 48011, Bilbao. Dicha información podrá ser facilitada a empresas colaboradoras, Administración Pública con competencia en la materia y empresas del grupo SPRI si fuera necesario. Les recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada, dirigiendo una comunicación escrita a los Responsables de Seguridad de SPRI, S.A. a lopd@spri.es.

***Hirugarrena***.– Emandako laguntzek zabalkunde egokia izango dutela bermatze aldera, enpresa onuradunen zerrenda SPRI SAri hala eskatzen dioten interesdunen eskura egongo da. SPRI SAk onuradunak zeintzuk izan diren adierazteko jarriko duen zerrendan konfidentzialak ez diren alderdiak besterik ez dira agertuko.

***Laugarrena***.– Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden puntuetan eta sozietate publikoei aplikatzekoak direnetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa beteko da.

***Bosgarrena***.– SPRI SAren erabakia merkataritza-izaerakoa da eta jurisdikzio-eskumena epaile eta epaitegi zibilena da. Enpresa onuradunak, eduki dezaketen edozein eskumeni formalki uko eginez, diru-laguntzen programa hau interpretatu edo gauzatzerakoan sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio konpontzeko, Bilboko Justizia Auzitegien esanetara jartzen dira espresuki, horiek baitira gai horietan eskuduntza dutenak.

Bilbao, 2011ko martxoaren 30a.

Zuzendari nagusia,
TOMÁS ORBEA CELAYA.

***Tercera***.– A los efectos de garantizar la adecuada publicidad de las ayudas concedidas, la relación de las empresas beneficiarias estará a disposición de los interesados que así lo soliciten a SPRI, S.A. La difusión por parte de SPRI, S.A. de la relación de beneficiarios se limitará a aspectos no confidenciales.

***Cuarta***.– En todo lo no previsto en estas bases, se estará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en lo que resulte de aplicación a las Sociedades Públicas.

***Quinta***.– La decisión de SPRI, S.A. es de naturaleza mercantil y la competencia jurisdiccional es de los jueces y tribunales civiles. Las empresas beneficiarias, con renuncia formal a cualquier fuero que pudiera corresponderles, se someten de manera expresa, para la resolución de todo litigio, discrepancia, cuestión o reclamación que pudiera suscitarse, directa o indirectamente, respecto de la interpretación o ejecución del presente programa de ayudas, a los Tribunales de Justicia de Bilbao, competentes al efecto.

En Bilbao, a 30 de marzo de 2011.

El Director General,
TOMÁS ORBEA CELAYA.